

Hainbat ekintza antolatu dabez hilaren 22an Areatzan AKKB Egunean

12. orrialdea

Arratiako hiztegia bersino digitalean

Hilaren 12an aurkeztu zan Igorren Arratiako Udalen Mankomunitadeko egoitzan Arratiako hiztegi digitala. Aurkezpenean, Miren Dobaran, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskera Zuzendaria; Josune Gorospe Mankomunitadeko presidentea eta Agel Larrea eta Juan Rekalde hiztegiaren egileak egon ziran. Hiztegia AUMeko webgunean konsultatu daiteke. 13. orrialdea



Ander Astondoak 25 tontor egin gura ditu 24 ordutan

11. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

188

2013ko bagilaren 18a
hamabostekaria
www.begitu.org

San Juan eta San Pedro jaiak

Udako solstizioa edo San Juan jaiak eta berari lotutako erritoak bizirik diraue gurean. Suak biztuko dira herri eta auzune askotan.

Ubide eta Bedian herriko jaiak dira sanjuanak, baita Igorreko San Juan eta Zeanuriko Altzuaga auzuneetakoak. Gainera, Areatzako Zubizaran, Arantzazun, Oban eta Lemoan Tallerretan, suak biztuko dira eta leku askotan akelarrenen bat be egongo da. Suak, urak eta arbolak jai honeetan protagonismo berezia hartzean dabe eta errito batzuk galduta badagoz be, Ubiden arbola menditik ekarri eta plaza erdian altxatuko dabe.

Jaiak ondo pasetako dira eta erromeriak, kontzertuak eta jantzen egiteko aukerak ez dira faltauko, ezta be talentu lehiaketarik edo play-back-ik besteak beste.

Sanpedroak Arantzazu eta Dimako herriko jaiak dira eta Zeanuriko Undurragan eta Lemoako Elorriagan be ospatuten dira. Bertsoak eta antzerkia egongo dira Diman, Esti eta Olatzek kantauko dabe Ubiden eta *Cattle penning* txapelketea, hau da behiak zaldiz gobernatzeko proba, egongo da Undurragan.

5. eta 7. orrialdeak



Igorreko jaietan tortilla eta makailaua egiten Olabarrin.

ARRATIA

Gas bila ibili dira Arratian

Tesla Exploration International enpresek esplorazio sismikoak egin ditu bagilaren hasieran Arratiako hainbat lekutan, SHESA Euskadiko Hidrokarburoen Soziedadearen enkargupean. Honeen helburua "hidrokarburoak bildu ahalko leukezan kareharizko formaziorik ba ete dagoan jakitea" da Eusko Jaurlaritzako Euskal Energiaren Erakundearen arabera. Hata guzti be, talde ekologistak eta frackingaren kontrako plataformak errezeloz hartu dabez esplorazinoak. 7. orrialdea

BEDIA

Alfus eta Incoesa burrukan

Alfus eta Incoesako beharginen lanpostuen aldeko burrukeak konpondu barik jarraituten dau. Greban jarraituten dabe eta Bedian manifestazio jentetsua egin eben bagilaren 8an. Gatazkak konponduteko erakundeen bitartekaritza eskatu dabe Alfus eta Incoesako beharginen ordezkariak. Alfusen 16 lagun kaleratu gura dabez eta Incoesan Bediako planteaz zarratu eta Extremadurara lekuz aldatu beharginak. 6. orrialdea

ARRATIA

Udako solstizioa

"Euskal Herrian kontetan danez, San Juanetan/San Joanetan edo Donibaneetan Eguzkiak Ortziko (zerua) goia jotzen ei dau edo, beste modu baten esanda, euskaldunontzat bizitzaren jainkosa dan Ekhiak (eguzkia) osotasuna sinbolizetan dauan Ortz/Urzi dibinidadearen teilatu gainea ikututen dau...". Holan hasten da Angel Larrea historialariaren San Juan jaiak eta udako solstizioari buruzko erreportajea. 8. eta 9. orrialdeak

E.P.A.
Galdakao
www.epagaldakao.com
Matrikuletako epea, bagila osoa.
Tlfn. 94 456 60 98
Helduen heziketa

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskeraz zein erderaz
Agirre Lehendakaria 11 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 56 31 Faxa 94 673 70 83
E-posta: unaizulu@euskalnet.net




IGTIE**AGROTOXIKOAK**

Bada garaia gure soloak atontzeko, aurten ernegetan gagoz, hile bateko atzerapenagaz gabiz. Udabari hotzak eta euritsuak ez deusku itxi, behar dan moduan lurra prestatzen, eta gutako askok birritan eroin doguz lekak, birritan piperrak landatu... alperrikako beharra. Baina gure sorpresarako jada patatearen kakarraldo edota pulgoia agertu dira gure landaretan! Horreei aurre egiteko era konbenzionalean, momentuan dagoan izurri edo gaixotasuna gutziz desagertarazoten dan sintesi bidezko tratamendu kimikoa daukagu (agrototoxikoa). Baina aldi berean pozointzen doguz gure elikagaiak eta sortzean doguz

hondakin toxikoak gure inguruan (kasu batzuetan behin betirako).

Panorama baltz honen aurrean, aspaldi daukaguz gure esku, beste motatako tratamendu batzuk (ekologikoak). Honeekaz, efektu bardina lortuko dogu baina ez dira ez kaltegarriak, ez residualak. Barazaintza ekologikoan desoreken aurrean prebentzioa bultzatzen daben erremintak erabilten dira, nahiz eta momentu jakin baten zuzeneko metodoak erabilteko aukerea izan:

- Ez erabili insektizidarik, izan be erabileraren etenbakoak desoreka barriak eragiten ditu, harrapariak be kaltetuz (insektu onuragarriak, marigorringoak bezala).
- Ez erabili fungizidarik, mikro-organismoen garapena oztopatu eta



ondorioz landareak daukien sinbiosia kaltetzen da eta. Onddo onuragarri eta kaltegarriak akabatu doguz funtzionatu.

- Biodibersidadea bultzatu,

errotazino eta asoziazino bidez, inguruan basa landare, landare usaintsu eta lore desbardinak hazten itxita.

- Asoziazioak erabiliz izurrite batzuk uxatzea lortu daiteke alkarren ondoan ipinitako landareen alkarkidetzaren bidez, batzuetan amu moduan funtzionatu eta beste batzuetan uxatzaile lez.
- Esaterako azenarioa eta tipulina ilaratan txandakatu euli zuria uxatzea lortzen da.
- Gauza bera porrua sartuz.
- Artoak, tomate landaketetan harra erakartzen ditu.
- Apioa eta tomateak euli zuria uxatzen dabe azetatik.
- Espinakak babak babesten ditue zorri baltzetik.
- Kaputxino eta tageteak euli zuria kontrolatan dabe negutegietan.

Danok ezagutzen doguz asun purina, azeri butzan purina (fungiko eta erreminerlizantea), baratxuri urak (uxatzaile + insektizida), neem olioak (insektizida), Bacillus (insektizida), kaldo bordelesa (fungikoa). Fitoestimulatuzaile honeek aukera ezin hobea dira industria kimikoari aurre egiteko. Industria kimiko honek, lehengo munduko gerratik dabil gure ama lurra pozointzen eta miloeka lagun heriotzea sortzen. Ez da broma, munduan zehar (Dow Chemical, Monsanto, Bayer, DuPont, BASF, Syngenta, Novartis... eta beste gitxi batzuk) zabaltzen dabez agrototoxikoen molekula, bai ekoizpen prozesuetan (fabriketan), bai erabilten dituan nekazariarentzat be kaltegarriak eta kutsatzaileak diran.

TELEFONO INTERESGARRIAK**Larrialdiak**

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara
Bagilaren 17tik 23ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22

22:00etatik 09:00etara

Guarrobena. Amorebieta-Etxano.

Bagilaren 24tik 30era

N. Arieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18

22:00etatik 09:00etara

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.

Garagarriaren 1etik 7ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.
Zeberikoak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan**22:00etatik 09:00etara**

Chicote. Kareaga Goikoa 50. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapato eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapato eta jaiegunetan ez dago

zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45eko.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriatik): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefona: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: beginu@topagunea.com

www.beginu.org

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefona: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Kudeatzailea: Inigo Iruarizaga.

Erredakzino taldea: Irati Urien.

Maketazino: Inigo Iruarizaga.

Publizidadea: Inigo Iruarizaga. Telefona: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkonde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Alaia Ozerinjauregi eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.600 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Babesleak:

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



Bilbao Foru Alderdia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri-gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkartea

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48.142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEHIOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Agin (ito aginean, aginik)



Berba hau gaur egun lartxo erabilten ez bada be, lehenago erruz entzuten zan, era honeetan: agin, aginean, aginik, aiñean (agiñean, agiñik, agoskatuta). Zeozer ia-ia edo puntu-puntu gertatzeko unea danean esaten da. Batuaz, puntu berbea edo -ar atzizkia dagoz. Horrexegaitik oso erabilgarria da egoera askotan: Ito aginean ibili gozak. Hil aginik dago ezulka. Babak sikitu agin egon dira, baina euria mobidu da.

ERETXIA

Hasi dogu Arratiako jaien "Tourra"



ELENE ETXEBARRIA ARTABE

Aisialdi hezitzailea

Kursoa amaituta, unibersidadeko azterketak eginda eta selektibidadeko presinoia gainera kenduta, Arratiako lehenengo jaiak gustura hartu doguz! Igorreko jaiak, izan be, zabaltzen dabe Arratiako jaien "Tourra". Lehenengo etapan elegante pasau genduan, urez busti-busti egin baginan be.

Penea hainbeste eurigaz txosnagunea triste antzean egotea, ni neuretzat ez dago-eta benetako jairik txosna barik. Askotan entzun dodaz aspaldi honetan txosnak ipini ala ez ipini horren inguruko eztabaidak. Badakit legeren bat be badagoala hori arutzeko, baina azkenean lege hori sarritan txosnak galazoteko edo ipini gura dabezanai eragozpenak jarteko erabilten dabe udal batzuek. Jai parte hartzaileen ezaugarritzat daukadaz nik, ostera.

Jai parte hartzaileen hariari segiduta, ezinbestekoa da jai batzordeak izatea egitarauen antolatzaile. Zenbat eta anitzagoa izan jai batzordea hobeto barrez, ze batzuetan emoten dau persona berak dagozala beti saltsa guztietan. Ez dakit oso ondo zein dan modua, baina gure herrietan bizi diran persona guztiak sentidu beharko leukie batzorde horretan badagoala eurak ordezkaten dabenen bat. Jakina, horretarako danok izan behar dogu aktibo eta pertsonalki parte hartzaile (batzarretara joan, arduraren bat hartu, txosnetako txandetan egon...).

Esan dot danok sentidu behar dogula horren parte eta berez doala emoten badau be, batzuetan ez danez holan izaten, esan gura dot andrazkoak hor egotea be ezinbestekoa dala. Hor egotea, baina ez bakarrik florero baten moduan, kupoak betetako-eta, baizik eta ardurak emonda eta batez be euren abotsa aintzat hartuta eta mutilena beste balorauta.

Badago beste kontu bat esan barik itxi gura ez dodana: batzuek, jaiak eta alkohola atxaki, zelan kanporatzen dabene euren biolentzia. Alde batetik, mutilen arteko burrukak ugaritu egiten dira eta benetan oso giro txarra sortzean dabe, batzuetan txosnak eta tabernak itxi behar izateraino. Ez dago justifikaziorik horretarako, argi esan gura dot. Bestetik, indarkeria matxista, homofobo, xenofoboak... be ugaritu egiten dira. Danok daukagu jaietan ondo pasetako eskubidea, eta horretarako, beharrezkoa da bildur barik ibili ahal izatea. Jaietan be errespetua da lehenengo.

Baina bueno, jaien inguruan filosofau baino, esan dodan moduan hobeto da parte hartu; badakizue kantea: "ta berriz izango gara zorionsu edozein herriko jaietan".

Eutsi Arratiako jaien "Tourra"ri azken etapararte! Artean dauka helmuga eta, zelan ez, bertan ikusiko dogu alkar!

BATZ 50 urte
BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)
IZAN GINAN...
...BAGARA ETA IZANGO GARA

LUMATUTEN



UNAI SANTOS

Konzientzia

Azkenaldian inoz baino gehiago errepikatzen da. Lapurtu, ostu, bidegabe erabili, dagoan lekutik hartu. Gauza bera esateko modu desbardinak dira, baina azken baten ekintza lotsagarri berbera. Gainera, ustelkeriaren hantsa muga barik zabaltzen dala ikusten dogu egunetik egunera: errege-etxea, udala, legebiltzarra... bardin da, eskuluzak sistemako zirrikitu guztietara heltzean dira.

Hata guzti be, inortxok ez dau bere burua erruduntzat aurkeztuko. Ustezko (eta frogautako) lapurreta guzti horreen ondoren, beti diskurso bardina entzungo dogu: danak daukiela konzientzia lasai; danak egin daikiela lo trankil. Bitxia da gero, erlijinoagaz lotu izan ohi dan "konzientzia" berbea hain sarri erabiltea. Izan be, sasoi baten konzientziaren abotsari jarraitu ezean, jenteak infernua amaituko ebala uste eban. Gaur

egun, ordea, erlijinoaren pisua oso txikia da gure gizartean eta, dana dala, agintari eta politikari ustelenak be konzientziaren erretolikeagaz zuritzen dabe euren burua.

Larria da lapurtzea, herritarren kontura lotsa barik aberastea, baina badago zerbaist ondino txarragoa: herritarrek lelotzat hartzea. Behin eta barriro adarra jotea, eta gero, gainera, gu tontoak bagina lez tratetea. Horrek bai sortzean dauala benetakoa haserrea eta sumina. Izan be, egunak joan, egunak etorri, prensaurreko surrealistikak, ez buru ez hankarik ez daukien adierazpenak eta ganora bako azalpen eta justifikazioak eguneroko ogia izaten jarraitzen dabe. Aikor, eguneroko ogia eta zirkua!

Normala da, esanak esan, konzientzia hain lasai daukien horreek trankil egotea. Ondo dakie ez dirala infernura joango, eta infernua existiduko balitz be, seguru ez litzatekela leku nahikorik egongo hainbeste lapur leku berean sartzeako.

ZERTZEAN



ILLART GUMUZIO

1

Errekaduak egin ostean sartuz portale barrura aszensoraren aurrean hor dau auzokide bat gustura "iepa" pareta alkarri esan kenduz agurran ardura etxoten asko egon ostean aszensora be heldu da.

2

Barrura sartu, botoia jota astiro gorantza doa isiltasuna agerikoa, tentso dogu gaur giroa nahiz ta alkarri begira egon, biok itxita agoa. joe batzutan isiltasuna da sano inkomodoa.

3

Jada nerbioso ipini naz ta sakon hartu dot arnasa. Originala iziteana ez danez bape erraza gai bat ataraz berba eiteko dakit nazela kapaza. Hortxe bota dot, oso-osoon: "jo ze denpora eskasa!".

4

Leie apurtu dogun arren be ez dau asko emon gaiak. Non para dira, beste batzutan doguzan berba alaiak? Non parau dira, berba egiten ezin parauko garaik? Eskertu dotset esandakoan: "zelan Igorreko jaiak?".

5

"Jaietan beti guztiok ondo!" dodanez nire iritzi le(he)ngo tentsino guztia dogu biok albo baten itxi alkarriketan azkeneraino jada gaitezan iritsi: "egitarauan badau zer egin eta hori ez da gitxi!".

6

Aszensora be gelditu jaku jada heldu naz mugara. Isiltasuna ez dot gogoko baina ez dodanez trava aszensoretik arin urten naz, esanez agur erara: "ondo segidu beste baten be hemen alkartuko gara".

BEGI TXINDORRA

Dimako Zefe Ziarrustari omenalditxo bat egin eutsien eta han irakurritako testua BEGITUREN irakurleakaz konpartidu gura izan dabe bere lagunak.

"Omenaldiak sarritan berandugi egiten dira, ez dakit omenaldia berbea be egokia dan edo aintzat hartzea edo maitasuna erabiltea berba aproposagoak izango litzatekezan, baina berbak hain dira estuak, non zer sentiduten dogun ez daben behar dan moduan adierazoten. Gure belaunaldiko askok Zefe daukagu eredu, sano maite dogu eta hori adierazo gura genduan, halan edo holan, kantuan, jantzan, prosan edo burdi gainean baina barruan genduan sentimentua kanporatzea zan geunkan helburu bakarra.

Leku guztietan dauan, Dimako jentila.

Umila, isila, abila, otsana, apala, langilea, fina, alkatea, argia... mila adjetibo erabili geinkez bera nor dan eta zer dan deskribidu guran baina bere izakerearen laburpena, bere begiradan dago, maisu baten burua eta ume baten bihotza daukan personea.

Arratiako berbategian Dima begituten badogu, Dima ez da agertuten baina bai dimoztar, eta holan dino: Dimoztarra iz adj Dima herriko biztanlea, Dimako. Dimatar. "Dimoztar askok diñoie eurek ez direala arratiarrak "zamakolistak" baino". Baina gutako asko ez gara zamakolista sentiduten, dimoztar asko eta asko "Zefistak" sentiduten gara".



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48 142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisci.com

agoa Ortodontzia
hagin klinika
Marina Uriagaitia Aldekoa
Odontologia
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalegata Zerbaita 101
R.F.S. 21/06

Olaetxe
OPTICA ZENTRUA
Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gubitua
Begi tentsinoak
Lentillen adaptazinoak
Kiroletarako betaurrekoak
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

BEDIA

Sua eta punk eta rock-a jaietan

Sua da San Juan jaietako protagonistea, herrialde askotan eta Arratian be suak biztuko dira San Juan bezperan, txar gutzia erre eta ziklo barri batera hasikerea emoteko asmoz. Halan egingo dabe Bediako herriko jaietan.



musikea jotzen daben talde bik emongo dabe kontzertua hurrengo egunean, Vietato Pensare eta Hesian taldeak, hain zuzen be.

Jaiari amaierara emoteko, barriz, erropa tradizionalak jantziko dabez herritarrek.

Jai egunotan, umeentzako jolasak, herri kirolak, gastronomia lehiaketak eta erromeriak alaituko dabez Bediako sanjuanak.

Bagilak 16, domekea

10:00etatik 14:30era XIII. Esku-langintza eta Elikagaien Azokea.

Bagilak 21, barikua

20:00etan, jaien hasikerako txupina, trikitixea eta dultzaineagaz alaituta. Sardina-jana.

21:30etan, herri afaria.

23:00etan, erromeria Obaneuke taldeagaz. Atsedendian Play-back-a. Mozorro gaua. Gaia: uriko tribuak.

Bagilak 22, zapatua

12:00etan, IV. Paella Lehiaketarako izen emotea.

14:00etan, paellak aurkeztu.

17:00etan, Kuadrilen arteko V. Olinpiadak.

17:00etan, Mus Txapelketea Batzokiak antolatuta.

22:30etan, kontzertuak Vietato Pensare, Hesian eta Tximeleta taldeakaz.

Autobusa Arratiara, Zornotzara eta Galdakaora 02:30etan eta 04:30etan.

Bagilak 23, domekea

11:00etan, antxinako autoen erakusketea.

12:00etan, esku pelota partiduak. Umeak.

12:00etan, pintxo-pote trikitixea-gaz alaituta.

13:30etan, korru jantzak.

18:00etan, esku pelota partiduak. Kadeteak eta Gazteak.

19:00etan, herri kirolak: Iñaki Perurena, Atutxa-Ugaitz, Faustino Mugertza.

21:00etan, frontenis finala.

22:00etan, Otegi bikotea.

24:00etan, San Juan sua.

Bagilak 24, astelehena

12:00etan, meza nagusia.

12:00etatik 13:30era, puzgarriak eta frontoi jokoak.

17:00etatik 19:30era, puzgarriak, tailerrak eta bitsa.

17:00etan, XXVIII Briska Txapelketea.

18:00etan, Tortilla Txapelketarako izen emotea.

19:00etan, Ugel Txapelketea. Laguntasuna tabernak antolatuta.

20:00etan, txokolata.

20:30etan, Erdizka Lauetan taldeagaz plaza-jantzea, Bedian egon diran jantza taldeai esker.

22:00etan, jaien amaierara. Erdu erropa tradizionalakaz.

UBIDE

San Juan bezperan akelarrea izango da

Ubideko sanjuanetan ekitaldi bi dagoz aitamena merezidu dabenak euren ikusgarritasunagaitik.



Arbola altxatzen.

Erredakzioa

Ekitaldi ikusgarri bat arbola altxatzea da. Basora joan, zugatz bat moztu eta herriko plazan altxatzen dabe ubidezarrak. Bestea, akelarrea. San Juan bezperan sua biztu eta akelarrea antzeztuko dabe herrian. Ostein, hainbat sari irabazi dituen Esti eta Olatz zeanurizarrak kantu giroa sortuko dabe.

Ubiden, herritarrek montetan dabez jai-giroan eszenalekua eta txosnak. Hori bagilaren 14 eta 15ean izango da. Desmontetako lanak barriz, hilaren 28 eta 29an egingo ditue.

Bagilak 21, barikua

17:30etan, arbolaren bila joateko zitea.

19:30etan, arbola altxau, jaiak hasi.

20:30etan, plazan afari eta edari trukea.

21:00etan, fanfarrea kalez kale, antzerki herrikoia eta Astalaporen kontzertua.

Bagilak 22, zapatua

Goizean, guraso eta haurren jai.

17:00etan, futbola Zeani-Ubide Olalden.

19:00etan, plazan globoflexia ikuskizuna.

21:00etan, herri afaria frontoian.

24:00etan, erromeria plazan.

Bagilak 23, domekea

Puzgarriak.

22:00etan, sua biztu eta akelarrea.

22:45etan, kantu giroa Esti eta Olatzegaz.

Bagilak 24, astelehena

Kalejireta.

Meza osteko barauskarria.

18:00etan, pelota jaialdia. Adin desbardineta pelotarien partiduak.

Erredakzioa

Bediazarrak jantzi egingo dira egun bitan, giro desbardineta emoteko jaiari: barikuan, hilak 21, mozorro gaua izango da eta uri handietan legez, emoak, frikiak, gotikoak, heavyak eta punkiak, beste batzuen artean, ibiliko dira herrian zehar. Punkiak gustura asko, seguruenik, ze punk-rock

ARRATIA

Beste sanjuan eta sanpedroak

Erredakzioa

San Juan suak ez dira bakarrik egingo Bedian eta Ubiden, herriko jaiak ez dan herrietan be biztuko dira. Holan, beste leku batzuen artean, Areatzako Zubizaran, Arantzazun, edo Lemoan Tallerretan.

Baina auzuneetan be ospatzen dira San Juan eta San Pedro jaiak. Sanjuanak Igorreko San Juan auzunean, Dimako Oba auzunean eta Zeanuriko Altzuagan be ospatzen dira. Sanpedroak, barriz, Zeanuriko Undurragan eta Lemoako Elorriagan.

Altzuaga (Zeanuri)

Bagilak 22, zapatua

15:00etan, txupina.

21:00etan, auzo afaria.

Bagilak 23, domekea

12:00etan mezea. Ondoren, ba-

rauskarria, zozketea, herri kirolak eta jantzak.

19:00etan, bola jokoa eta umeentzako jolasak.

Bagilak 24, astelehena

12:00etan, mezea eta ondoren barauskarria.

San Juan (Igorre)

Bagilak 23, domekea

13:00etan, mezea. Ostein trikitilariak.

20:00etan sardina jana. Ostein trikitilariak.

Gauean, jantza afrikarrak eta su artifizialak.

Ostein kantuan ibiliko dira hainbat lagun.

Bagilak 24, astelehena

12:00etan mezea. Gero Iraia eta Ane trikitixea-gaz.

Kopautxoa.

Undurraga (Zeanuri)

Bagilak 28, barikua

21:30etan, herri afaria, abade-txean.

Bagilak 29, zapatua

12:00etan, mezea bertsoakaz eta ondoren barauskarria.

16:00etan, Mus Txapelketako kanporaketak, Txatoren txokoan.

17:00etan, *Cattle penning* Txapelketea (behiak zaldiz gobernatzeko proba).

21:00etan, sari banaketea eta zozketea.

21:30etan, txitxi-burruntzia.

Bagilak 30, domekea

12:00etan, mezea eta ondoren barauskarria.

16:00etan, Mus Txapelketako finala.

19:00etan, txokolata eta jaien amaierara.

Elorriaga (Lemoa)

Bagilak 29, zapatua

Mezea.

13:00etan, barauskarria.

13:15etan, herri kirolak.

14:00etan, Ugel Txapelketea nagusieentzat eta Dardo Txapelketea umeentzat.

14:00etan, Paella Txapelketea.

17:00etan, umeentzako jolasak eta tailerrak.

17:30etan, Mus Txapelketea.

19:00etan, Bola Txapelketea.

20:00etan, txitxi-burruntzia.

Egun osoan zehar Gaztetxeak ipi-

nitako txosnea egongo da.



UBIDE
Jai batzordeak eta Ubideko Udalak
Gora Ubideko jaiak!
EUSKAL PRESO ETA INESLARIAK
ETXERA
JAI ZORIONTSUAK OPA DEUTSUEZ

ZEANURI

Zeanuri eta Areatza arteko espaloia amaituta dago**Erredakzioa**

Zeanuri eta Areatza arteko bide osoa oinez eta "arrisku barik" egiteko espaloia eginda dago. Fase bitan egin da: lehenengoa 2010ean izan zan, Areatzatik Ugunaganeraino, hain zuzen be; bigarren zatia, aurten egin dabe eta atzenengo farola bagilaren 4an ipini zan. Lanak BFaren laguntzeagaz egin dira, 800.000 euro guztira.

"Bide horretan espaloirik ez egotea beti iruditu jaku gabezia bat. Zulaibarretik Areatzara joatea arriskutsua zala iruditzen jakun, batez be edadeko jentearentzat. Eta momentu baten holan aurkeztu genduan Foru Aldundian. Egitekotan zatika egin behar zala esan euskuen eta lehenengo faserako 400.000 euro emon euskuezan" azaldu deutso BEGITURI Izaskun Sagarna Zeanuriko alkateak. Areatzatik Zeanurirantz hasi ziran lanak, Zulaibar aldean obra zailtxuagoa izango zalakoan, alkatearen arabera. Hau 2010ean egin zan; Foru Aldundiak emondako 400.000 eurogaz, eta hurrengo faserako, beste 400.000 euro emon ebazan Aldundiak. Hasieran proiektua 1.200.000 eurokoa bazan be, diru horregaz (800.000 euro) konpondu dirala dino alkateak, danerako emon dauala.

Lehengo faseko obrak De Diego enpresek egin ebazan, eta bigarrenekoak Morga enpresek.

Prak bide publikoetatik

Erroten ibilbidean, ermiten ibilbidean eta Zeanuri eta Ubideko Larre Mankomunidadearen ibilbideetan seinaleak ipinteko, Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Sailak 18.800 euroko diru laguntzea emon deutso Zeanuriri, aurrekontuaren % 80. Izan be, seinalizazioa osotu eta leku batzuetan

**Zeanuri.**

lur pribaduetatik lur publikoetara aldatu behar dira seinaleak.

Hiru bide horreek, zati baten markauta dagoz lehendik be, baina kasu batzuetan, lur pribaduetan egon dira seinaleak. Seinalizazioa osotuteko, Espainiako Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko Orbelak, Joko Alaikoakaz ipini zan kontaktuan "eta 3 PR marketea ebatzi zan. Hiru PR horreek marketako Foru Aldundiak emongo dau diru-laguntzea, Agenda 21etik, hain zuzen be. Zeanurik 5.800 euro ipini beharke leukez, baina diru hori jarri beharrean, brigadakoak ipiniko dabez seinale horreek. Beti be Joko Alaikoak esanda non ipini behar diran" dino alkateak. Lanok bagilan bertan hasiko dira.

Hogeta hamar seinale inguru eta informazio panel bi ipini behar dira, Orbelaren proiektuaren arabera.

Herriko toponimia herri erdiguneko panelean

Bestalde herri toponimia guztia jasoten dauan mapa bat be argitaratu dau Zeanuriko Udalak eta herri-guneko panelean ipini. "Aguzilak eta bertako langileak asko lagundu dabe. Baina Ander Menterolari sarritan itaundu deusagu eta ha izan da gure iturria".

ARRATIA

Mankomunidadea Eusko Jaurlaritzaren bitartekaritzaren alde Alfus eta Incoesan

FCC Alfus eta Incoesako beharginak bitartekaritza eskatu eutsien Mankomunidadeari, baina udal esparruko organismoak ez daukiela eskumenik bitartekaritza zerbitzurik eskeini ahal izateko informau eutsen Mankomunidadeak beharginai eta Eusko Jaurlaritzaren bitartekaritzaren alde egin dau "enpresa biak biziten dabiz lan-gatazkeari konponbidea topetako".

Erredakzioa

Mankomunidadea hartu-emo-netan ipini zan Eusko Jaurlaritzako Lan Zuzendaritzeagaz, eta preminazko bilera eskatu eban, maiatzaren 29an, FCC Alfuseko Enpresa Batzordeko ordezkariak eta Incoesako beharginen ordezkariak idazki bi emon eta gero Mankomunidadeko alkate eta zinegotziaz, euren bitartekaritza eskatzeko. Bilera hogeita lau ordu geroago egin zan, eta, bertan, Lan Zuzendaritzeak jakinarazo eban holango lan-gatazketan bitartekari lez aritzeko eskumena

daukien organismo bakarrak PRECO eta Eusko Jaurlaritzako Lan Zuzendaritza dirala.

"Gure ardua guztia helarazogura izan dogu Arratiako behargin eta enpresak bizi daberen egoereagaitik, eta, era berean, babesa emon gura izan dogu, gatazka honek konponbide ona euki dagian. Gure eskualdeko enpleguari eta enpresa-sareari eustea Mankomunidadea osotuten dogun udal arduradunen ardua nagusienetakoa da", azaldu eban Josune Gorospek, Arratiako Udalen Mankomunidadeko presidentek.

EH Bilduren atxikimendua

Arratiako EHBilduk be bat egiten dau Alfus eta Incoesako langileen burrukakaz. "Euskal Herriko langileriaren egoera okerrera doa egunez egun. Arratian be, emergentzia egoeran gagoz edo emergentzia egoerara ekarri gaitue. Azken urteetan, gure eskualdean, langileen kaleratzeak eta lantokien itxierak ugariak izan dira eta langileria etenbarik dabil erantzuten. Asko eta asko egoerarik eta latzenean".

Lanbideren arabera 1.000 langabetutik gora dagozala Arratian emon dabe jakitera sindikatuak.

BEDIA

Erredakzioa

Bagilaren 8an, Alfus eta Incoesako Enpresa Batzordeak manifestazioa deitu eban "Alfus eta Incoesa bizirik. Arratia borrokan. Enplegua defenda dezagun" lelopean.

Manifestazioak Incoesatik urten eta Alfuserainoko bidea egin eban. Alfusen, itxialdian egozan behargin biak urten ziran eta manifestazioan hartu eban parte. Bediako plazan amaitu zan manifestazioa, beharginak komunikatu bat irakurri ostean.

Manifestazioa jentetsua izan zan, BEGITUK konsultautako iturrien arabera.

Manifestazioa enpleguaren alde**Manifestariak Bediako plazan.**

ARANTZAZU / ARTEA

Ingeniaritza eskolakoak kotxe elektrikoa probauko dabe Bildosolako Industrialdean**Erredakzioa**

EHUko Ingeniaritza Eskolako Borja Urizar eta Asier Zubizarretak akordio bat sinatu eban Artea eta Arantzazuko alkateakaz bagilaren 13an, Bildosolako Industrialdean

euren kotxe barria probetako. Kotxe honegaz parte hartuko dau unibersidadeen arteko lehiaketetan, Silverstonen (Britania Handia) eta Montmelon (Katalunia) diseinatu eta fabrikatu dauan ikasle eta irakasle taldeak. Pilotua, Ar-

teako Borja Urizar da. Bagilan probauko dabe 200 kiloko prototipo hau Bildosolako Industrialdean.

Hasikera baten, Arantzazuk proiektuari baiezkoa emon arren, ez eban lortu Arteko Udalaren onospena. Izan be, Bilduk eta Al-datuzek kontra bozkatu eban martian. Baina proiektu taldeko eta pilotua dan Urizarrek udaletxean proiektua azaldu ostean, bigarren bozka bat egin zan eta oraingoan onartu egin zan EAJ-PNVren aldeko botoakaz eta gainontzekoen abstentzioagaz.

Ekonomiarentzako teknologia barrikuntzak daukan garrantziaren

ganean ados egon ziran alkateak eta unibersidadekoak.

**Arantzazu eta Arteako alkateak unibersidadekoakaz.**

DIMA

Pelota partiduak jaiai hasikerea emoteko

Txupina bagilaren 27an botako badabe be, aurreko astegienean hasiko dira motorrak berotzen dimoztarrak. Izan be, San Juan bezperan, sua eta txitxi-burruntziak gainera, pelota partiduak egongo dira jaiai hasikerea emoteko; tartean, neska jokatu daben pala partidua.

Erredakzioa

Nesken Gomazko Paletako EEPF zirkuituko partidua da Diman jokatu dan hau; bertan, Nagore Martin eta Amaia Araiztegi, Maitane Agirre eta Leire Etxanizen kontra neurtuko dira. Txumuluxueta Pelota Alkartearen ekimena izan da partidu hau jai egitarauan sartzea, "pelota munduan nesken parte hartzea bultzatzeko asmoz eta eredu bat bistan ipinteko". Jai Batzordeak ondo hartu eban idea eta Udaleko Bardintasun atalaren

laguntzeagaz, ekarri dabe Dimara partidua.

Kuadrilak be protagonismo berezia hartuko dabe Diman eta kuadrilen arteko txapelketea antolatu dabe. Tortillak egiten, kantetan, batukadeagaz tabernetan, play-backa egiten, jantzan edo pintxo-poteko probetan neurtuko dira.

Bagilak 23, domekea

16:30ean, pelota eskolako umeen partiduak.
17:30ean, nesken pala partidua.



21:00etan, San Juan sua eta txitxi-burruntzia.

Bagilak 27, eguena

18:00etan, txupina eta pregoia.
20:00etan, tortilla eta tostada lehiaketak.
22:00etan, kanturik onenak: Josu&Patxo&Ander eta kuadrilak.
23:30ean, erromeria Obaneuegagaz.

Bagilak 28, barikua

17:30ean, pelota jaialdia: Pelota eskolako umeen partiduak.
18:00etan, Kadeteak-Nagusiak-Open.
Batukada reziklau.
23:00etan, erromeria, Trikitrake taldeagaz.
24:00etan, Play-back leihaketea.

Bagilak 29, zapatua

11:00etan, umeen jolasak: herri kirolak, tailerrak eta bulderra.
14:30ean, herri bazkaria. Bazkaloisterako erromeria: Argi eta Iker.
20:00etan, txarangea eta pintxo poteoa.
23:00etan, Bostenbor, Arkada Social eta Emon taldeen kontzertuak.
24:00etan, presoen eskubideen aldeko ekitaldia.

Bagilak 30, domekea

11:00etan, umeentzat puzgarriak (edo Zirko Eskola Txikia).
13:00etan, Gazte Barri Jantza Taldea.
19:00etan, bertso saioa: Onintza Enbeita, Igor Elortza, Alaia Martin eta Jokin Uranga.
20:30ean, zozketea.
20:30ean, antzerkia, *Lingua Nabajorum*.



ARANTZAZU

Hip hop-a jaietan

Erredakzioa

Herriko jaiak, sanpedroak, ospatutako egun biko jai egitaraua presatu dabe. Hata guzti be, San Juan bezperrea be ospatuko da Arantzazun. 20:00etan sardina jana eta ostean San Juan sua biztuko dabe.

Sanpedroetan, Euskal Herrian eta munduan be badala Arantzazu erakutsiko dabe herriko gazteak, euskal jantza gainera, hip hop-a be jantzatzen.

Bagilak 29, zapatua

10:00etan, txupina. Umeentzako jokoak (ludotekea, tailerrak, rokodromo, txutxu tren).
12:30ean, mezea.
13:00etan, bits jai. 13:30ean, jubila duentzako kopautxo herriko plazan.
17:00etan, euskal jantza eta hip hop-a.
17:30ean, umeentzako jokoak. Herri jolasak Urperen eskutik.
20:00etan, jana eta edana plazan. Odolostea, txorizoa eta urdaia.
22:00etan, erromeria, Basajaun taldeagaz.

Bagilak 30, domekea

14:00etan, III. Paella Txapelketea eta III. Tortilla Txapelketea.
17:00etan, Mus eta Briska Txapelketa.

ARRATIA

Gasa bilatzeko esplorazino sismikoak egin ditue

Bagilaren lehenengo astean, hidrokarburoak bilatzeko esplorazino sismikoak egiten hasi ziran Arratiako hainbat lekutan: Areatzan, Artean eta Diman, barbarako.

Erredakzioa

Esplorazinoak TESLA Exploration International enpresa britaniarrek egiten ditu SHESA Euskadiko Hidrokarburoen Soziedadearen enkargupean. Hori dala eta, Arratian alarma guztiak biztu dira,

gasa haustura hidraulikoa edo fracking bidez aterako ete dan bildurrez.

Eusko Jauriaritzak, esplorazinoak fracking zundaketakaz zerikusia izatea ukatu eban, "gezur biribila da Orozko inguruan Saia baimena baliatuta inolako fracking zundaketarik egiten ari

diranik esatea". Eta gasa topau eta ateratzekotan, modu konbenzionalen aterateko gasa izango litzatekela dinoe. Hau da, esplorazinoon helburua, Euskal Energiaren Erakundearen arabera, "hidrokarburoak bildu ahalko leuzkien kareharizko formaziorik ba ete dagoan jakitea da". Kareharria, harri porotsua da eta handik gasa aterateko, modu konbenzionalen, hau da, hodi baten bidez, egiten da. Frackinga, barriz, arbel eta beste hatx ez porotsuetan harrapatuta gertzen dan gasa aterateko erabiltzen da.

Eskumenak eta baimenak

Inguruko udal askok ikerketak errezeloz hartu arren, lur publikoetan ikerketa lanak egiteko baimena emon behar izan dabe. Izan be, Euskadiko Hidrokarburoak, hidrokarburoak iker tuteko baimena dauka EAEko Industria, Barikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak emonda 269/2012 dekretuaren bidez eta "lanak eta inbersinoak" egiteko sei urteko indaraldia dauka. Oraingo lanon helburua gas konbenzionala topetea dala dinoe bai SHESAko komunikazino sailekoak, baita TESLAko beharginak.

Esplorazino sismiko honek egin baino lehen, Dimako alkatea Rafa Ugaldek, Igoerreko Beinat Anzolak eta Lemoako alkate-ordea Aitor Erauzkinek SHESAko ingeniari bategaz euki eben batzarra eta Ugalderen esanetan honek behin eta barriro agindu eutsen "ez dala frackingik egingo", gas konbenzionalaren bila dabiz-

la. "Baina gu ez gara lar fietan eta oztopoak ipinten saiaturako gara" esan eutsan Dimako alkateak BECURI.

Dimak frackingaren kontrako mozinoa onartuta dauka, Arteak, Igoerre, Ubidek, Zeanurik eta Zeberioi legez. Mozino honen helburua, "udalerri honeen mugen barruan teknika hau aurrera eroatea galarazotea da, esplorazino zein ustiatetea bera". Hata guzti be, hidrokarburoen kontuetan, batez be, ustiatzeari jagokonean, "eskumena ez da udalena, ezta Eusko Jauriaritzarena, Espainiako Gobernuarena baino" gogoarazo ebanek alkateak.

Erreakzioak

Eusko Jauriaritzak honek frackingagaz zerikusia izaterik ukatu arren, talde ekologistak eta frackingaren kontrako taldeak errezeloz hartu dabez esplorazino sismikoak. "Ez dakigu zer topauko daben. Jurasiko eta Kretazikoren gaintik, transizino gune bat dago eta hor arbela egon daiteke. Arbela eta haustura hidrauliko bidez atera beharreko gasa topau ezker, zer egingo leukie?" dino Aitor Urresti Fracking Ez Bizkaia plataformakoak.

Talde ekologistak eta Arteako Bilduk be susmo berbera daukie. "Zerbaist topetan badabe frackinga egingo dabe. Gas konbenzionalaren bila dabilzala esaten dabe, baina orain arte ez dabe ezer topau eta EEEk 30 urte daroaz Euskadin gas konbenzionalaren bila" dino Igoerre Bizirikiek.

Arteako Bildu esplorazino horreek egitearen kontra agertu da TESLA

enpresak "gure herrietan egin dauzan ikerketa geografiko sismikoen aurka azaltzen gara, horren atzean, duda barik, frackinga bultzatzeko asmoa ikusten dogulako" gainera, "energia konsumoari eta ustiatetari buruzko bestelako gogoeta eta alternatiben alde" egingo dabela dinoe.

Frackingaren bidez gasa ustiatzeako, aurretik ikerketak eginda izan behar ditu enpresa ustiatzaileak derigor. SHESA dauka frackingarako emakidak gurean eta oraingo ikerketak fracking egiteko ez badira be, horretarako baldintzak betetzen lagundu ahal dauka uste dabe ekologistak.

Esplorazino sismikoak

Hidrokarburoak bildu ahalko leuzan kareharizko formaziorik ba ete dagoan Arratian, topografia lanak egiten dabiz Tesla enpresakoak, islapen sismikoaren teknika erabiliz. Holan, kamino eta bideetan, kable eta geocono izeneko uhin kaptadoreak ipinten ditue, eta kamioi bibratzaileak pasetan dira bibrazinoak eragiteko. Bibrazino honek, uhin batzuk sortzean dira, lurpeko hatxetan islatzen diranak, eta lurgainean ipinitako kaptadoreak (geoponoak) jasoten dituenak. Geoponoetatik kontrol-zentrorra pasetan dira lur azpikoaren mapa antzeko bat egiteko. Mapa horretan material desbardinatoko geruzak ikusten dira.

Teknika honek "ez deutso ingurumenari eraginik egiten, ezta kalterik sortzean" Tesla Exploration International-en arabera.

UDAKO SOLSTIZIOA

Udako solstizioa: San Juan jaia

Hasteko, solstizioa zera da: gure kasuan, ipar hemisferioko ardatzerdi baten inklinazio axialik handiena harturik, Lurra planeteak Eguzkia izar handirantz orbitetan dauanean gehien makurtuten dan unea. Hori fenomeno astronomikoori, udako solstizioa danean, bagilaren 20tik 22ra bitartean izaten dan arren, Europako tradizio zaharrea 23ko gauagaz, hau da, San Juan gauagaz, lotu da.



San Juan sua.

Angel Larrea

Euskal Herrian kontetan danez, San Juanetan/San Joanetan edo Donibaneetan Eguzkiak Ortziko (zerua) goia jotzen ei dau edo, beste modu baten esanda, euskaldunontzat bizitzaren jainkosa dan Ekhiak (eguzkia) osotasuna sinbolizetan dauan Ortzi/Urtzi dibinidadarean teilatu gainea

ikututen dau. Gure arbaso euskaldunen kosmogonia zaharrea, beste kosmogonia naturalista eta animisten antzera, oinarritzko Lau Elementuak diran Ura, Sua, Lurra eta Haizearen sinbologiak garrantzi handia hartzean dau.

San Juan inguruko egunak udabarritik udagoienerako pausua bideratzen dabe, hots, goiko Eguzkiaren punturik altuenera

doan bidea zabaltzen deuskue. Horregaitik, sua izaten da biziaren momenturik gorienak adierazoteko elementu magikoa. Sua purifiketako elementu garbitzailea da, eta horixe da, hain zuzen bere esangurarik zabalduena. Suak amaiera emoten deutso sasoi bateri eta hasikerea beste barri bateri. Une egokia beraz, aurreko urtean euki doguzan ezbeharrak,

arazoak eta abar errez ixteko, eta erreago egiten jaku sasoi barri eta itxaropentsu bateri pasoa edo bidea emotea. Sarritan San Juan-sugarra bidekurutzetan eta inguruetako toki edo leku nabarmenetan biztu izan da izpiritu txarrak uxatuteko; kontuan hartu behar dira, era berean, bagilaren 23ko gauak jentearen imajinarioan sortu dituan superstizioak: San Juan suaren kea azaleko gatzen kontrako erremedioa zala; edo gau magiko horretan sorgin-indarra inoz baino nabariagoa dala. Azken hau kentzeako zer egin behar zan: biztu sua, jo txilina kale edo soloe-tatik zehar, edo eleizako kanpantorreko kanpaiak jo.

Baina 23ko gaua laburra da, eta segiduan dator San Juan eguneko goiza. Beste momentu magikoa: ur guztiak "bedeinkatuak" dira. Zeanurin esaterako, San Juan goizean, neskatxi gazteak euren gorputza garbitzen eben santuaren ur-bedeinkatuagaz, ule luzeak be orrazten ebezan kontu guztiagaz, gero, nobio edo mutil maitatuagaz egiten zan kortejoan eder eta galantak egoteko. Holan dinosku hurrengo kanta honek:

"Izar eder bat
ateratzen da
urtean egun batean.
Urtean egun batean,
eta ura San Juan goizean".

Uren podere/birtude berezi edo dohai berberak ebezan San Juan goizean lurak bustiten ebazan ihitzak, edo goiz haretan jaiotariko zekor nabarrak, ipuin magikoetan esan dan lez; hori holan izanik, animaliak paseetan ziran erreketatik eta personak bilozik bedartzetatik urte osoan zehar gaixotasunik ez izateko. Beraz, San Juan eguneko uretan egineko igurdialdiak, personak, animaliak eta beste gauza

San Juan goizean jentea**bilozik pasetan zan****bedartzetatik urte osoan****gaixotasunik ez izateko**



Stonehenge.

batzuk be osatu zein babesteko balio ei eban, eta horrenbestez altxor edo bitxikeria modura gordetan ziran etxeetan.

Solstizioko jai handi hau Eleizeak, zelan ez, kristautu egin eban. Eta jai ospetsuak daukaguz, gaur egun, Euskal Herrian San Joaneri ohore egiten deutsienak, esaterako: Araban, Bastida eta Agurainoak; Bizkaian, Mundakakoak eta Gaztelugatxeko San Juango erromeria; eta Gipuzkoan, Hernani eta Tolosakoak. Azken uri honetan konserbetan da "bordo-dantza" zaharra eta ospetsua. Araban, Bastidan kasurako, San Joan bezperan herritarrak hainbat ontzi astinduz sekulako zaratea ateraten dabe; eta Agurainen "Sanjuanada" jantza egiten dabe bertako gazteak arbo-

la baten inguruan.

Horrezaz gainera, esan izan da San Joan Bateatzaileari eskeinitako ermitak iturriakaz erlazinatuta dagozala. Eta magia horretaz gozatu gura badogu, Nafarroara, Urdiain lango leku batetara joan beharko dogu, Urbasako magalean eta Aralargo mendikateari begira dagoan herri txikira. Han San Juan ermitearen ondoan, suaren inguruan zirkulua eginaz, herriko andrazkoak alkarren eskuak hartu eta, uztak babesteko, araoak ("konjuro" modukoak) kantetan hasten dira. "San Joan Dantza" da: araoak abesten dabezan bitartean besoak altxau eta jaisten dabez, baina oinak ez dira mobiduten eta horrexegaitik, hain zuzen be, jantza baino gehiago errito bat dala esan

geinke, "orain arte bedar, hemendik aurrera gari!", danak batera oihukatuz amaituten dana.

Gogoratu, horretarako, gure inguruko herrietan kontetan eta kantetan diran kontu eta koplak.

San Juan inguruko hainbat erritual eta sinismen

Zeberion jasoa da honako hau:

San Juan gaua baino hile erdi lehenago basoak garbituten joaten ziran gizonak. Sasiak eta oteak burdian bajatuten ebezan orturaino, han sikituten ixten ziran eta soloak be ebaten ziran. San Juan iluntzean, ebagitako sasiak-eta ekarten ziran, fardo-kordel bategaz galtzupillak eginda, piloak egiten ziran. Eta gazte guztiak solo bazter guztietatik joaten ziran bakotxak

bere galtzupilleari sua emonda. San Juan-kantea kantetan zan galtzupillak guztiz erre artean:

"San Joan bagilean,
denpora eder-ederrean,
sapoak eta sugeak erre,
artoak eta gariek gorde!
Gaur dala, biher dala Domienez,
etzi San Joan bide danez,
gure soloetan lapurrik ez,
badagoz bere erre daitez!"

Kantea kantau eta galtzupillak erreten ziranean, danak alkartuten ziran eta atzenengo heltzean zanak galtzupilleagaz, sua emoten eutsan piloari. Sua iziotu orduan atzera kantetan zan kantea, auzo guztiak batera. Danak jarten ziran suaren ondoan eta txokolatea prepartetan zan. Horren ostean, sugarrak apurkanaka bajuagoak egiten ziran, eta gazteak, batez be, suaren gainetik saltuka ibiltzen ziran. Honegaz loturik doa esakera hau: "sanjuanetako sue, aurreku ta saltue".

Beste elementu bat be aitatu behar dogu udako solstizio eta San Juan egunagaz lotuta dagoana: arbola edo zugatza, hau da, landaren munduaren gurtza eta partaidetza. Izan be, lehenago, sanjuan haretxa ipintzen zan (lexarra, artea edo pagoa be izan leiteke) San Juan egunean, goizean, etxe-balkoietan edo ateetan. Errameari palu bat zehartau egiten jakon kurutze baten itxurea hartzeko, eta gero lora edo bedar-usaindunak eta gari-buru batzuk ipinten jakozan, Santi Kurutz egunean lez. Hareek lorak "hamar egun gitxienez euki behar ziran eskegita, baina gehiago be eukiten ziran"; sanjuan haretxa, ostera, urtebetea egin ostean surtean erreten zan. Etxekoak babesteko egiten zan errito

zahar hau.

Tradizinoa izan da Arratian, gaurko egunean galduta egon arren, San Juan goizean bertan moztu eta adarrak neurri batetaraino kendu ostean, haretx gazte bat sartzea etxe-ondoko lurtean. Beste tradizino bat: San Juan bezpera gauerdi eta San Juan eguerdi bitartean, haretx bat arrakaldu eta hiru gizon Juan izenekoak ume gaixoari, ernia kentzeako, hiru bider esaten eben esaldi hau: "Eutsi Juan, ekazu Juan!". Umea be hiritan pasetan zan arrakaetik eta haretxa galtzean ez bazan umeari gatxa osatu egiten ei jakon.

Stonehengen jantzan Udako solstizioan

Udako solstizioa hainbat lekutan ospatuten da munduan, baina gune batzuk oihartzun berezia izaten dabe. Stonehengen, Ingalaterran, esate baterako milaka lagun biltzean dira Historiaurreko megalito ikusgarrien inguruan eguzkiaren ezkutatzeko eta agertze orduetan. Ingalaterrako "Morris" deituriko jantzariak be bertan izaten dira. Stonehengen udako solstizioari harrerea emoten jente asko batzean da. Goizeko bostetan, eguzkia urtetako dagoala, inguru guztiak kolapsau egiten dira. Druidaren zeremoniak eta "Morris" jantzarien ekitaldiak izaten dira nagusi. Eta eguzkiaren urtekeria izaten da interes handiena daukan momentua.

Amaitzeko, lehenago San Joan esateko beste era honeetan be esaten zan Arratian eta inguruetan: Saino ("sanjuanetako su" edo suteari esaten jakon), Sainoan, Sañoan (sáñoan, agoskatuta), Saioan (sáyoan, agoskatuta), Doniane (Zeanurin), Domiene (Zeberion), Yan Donian, Yan Donias (Zeanurin) eta Yaun Donias.

www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net
Zabalik 07:00 - 19:00

ALKIZABAL

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta-Lemoa bidea
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26
48330 Lemoa (Bizkaia)



KÄRCHER
Banatzaile
ofiziala









• Zuk behar duzuna
daukagu, galdetu
konpromiso gabe.
• Garraio zerbitzua.

MENDIA

K2an da Txikon

Erredakzioa

K2 (8.611 m.) munduko mendirik altuenetako bigarrena da, Everesten atzetik, baina Everest baino askoz gogorragoa. Bagilaren 15ean, abiatu zan Alex Txikon Karakorumerantza bere hamaikagarren zortzimilakoa egiteko asmotan. Bitan saiatu da lemoaztarra K2aren tontorra zapaltzen, 2004an eta 2011n, lortu barik. Ferran Latorre eta Felix Garcia ditu espedizionakide. Espedizi-

noak Azkue Fundazioaren eta BFaren babesa dauka.

Lhotseko tontorra (8.515 m) zapaldu eta Nuptsera (7.860m) saiakera bi egin eta hamabost egunera ekin deutso lemoaztarrrak K2a konkistetako erronkeari. 2004an 7.400 metrora heldu zan eta 2011an gau bi egin zituan laugarren kanpamentuan 8.000 metrotara. Euskal kordada bategen 1994an zabalduak Cesen ibilbidetik egingo dau saiakera "eskalada garbi eta seguru ba-

tegaz gozatzeko ibilbide onena" dala dino Txikonek.

Kalkuluen arabera, tontorrerako bideari garagarriaren hirugarren astean ekingo deutso, lehenago, 1 eta 2 kanpamentuetan aklimatazioa egin ondoren. Cesen ibilbideak gailurra egin eta egun bertan 3.000 metro jeisteko aukera emoten dau, sei ordu baino gitxiagoan kanpamentura heltzeako aukera.

Txikon Xtreme

Bagilaren 9an, ETB-1ek Txikon Xtrem dokumental saila estrenau eban. Lau dokumental eskeiniko ditu telebistak Txikonen abentura ikusgarrienak erakusteko.

Bagilean zehar, domeketan,



K2 mendia.

21:00etan dira programok.

"Mendian alkartasuna sentidutea bezain garrantzitsua da alkartasun hori etxean be igartea. Guztion babesa behar dot, zuek be zuen etxeetatik nire erronke-

tan laguntzen nauzelako" dino Txikonek. Bagilaren 9ko lehen emonaldiak arrakastea izan eban sare sozialetan, #TxikonXtreme traolak 179.000 personengana heltzea lortu eban.

MENDIA

Arteako auzuneetatiko mendi martxea

Erredakzioa

Arteako Kultur Kirol eta Euskera Taldeak antolatuta, Artea Auzorik Auzo XVII. mendi martxea izango da hilaren 23an. Ibilbide bi egongo dira aukeran. Ibilbide luzeak 33 km. ditu eta 1.400 m.ko desnibela. Hau egin gura dabena goizeko 08:00etan urtengo dira plazatik. Laburra egin gura dabena, barriz, ordu erdi beranduago urtengo dira 18 km. egiteko 800 m.ko desnibelagaz. Martxa honen helburua Arteako auzuneak eta bide zaharrak ezagutzera emotea da.

Ibilbide luzeko ibiltariak, 33km., San Migel Txikira abiatuko dira eta Santamañetik Zeberiorantza joango dira. Ibilbide laburrekoak, barriz, Arteatik zuzenean joango dira Zeberiora eta Zeberiotik Murgara. Murgatik bueltan hornidura egongo da. Ostein, ibilbide luzekoak Bikotxganera eta Upora igongo dira, eta laburrekoak Upora zuzenean. Handik Arteako plazara helduko dira ibiltari guztiak indarbarritzera.

ARTEAKO 
XVII. AUZORIK-AUZO

TXIRRINDULARITZEA

Oskar Garrok lau domina Espainiako Txapelketan

Erredakzioa

Oskar Garro Igorreko egokitutako ziklismoko txirrindulariak lau domina lortu dauz Espainiako Txapelketan; hiru pistan eta bat kaminoan, tartean urrezko bat, taldekakoa, hain zuzen be. Espainiako txapel-duna dan Euskadi taldea Granadosek eta Txakartegik osotuen dabe Igorrekoagaz batera. Bagilaren 2an Valentziako Luis Puig belodromoan

izan zan Espainiako Txapelketea.

Valentzian beste domina bi be, brontzezkoak honeek, lortu eban Garrok, kilometrokoa eta persekuzinokoa, hain zuzen be.

Kaminoan hirugarren

Maiatzaren 18 eta 19an, barriz, Espainiako txirrindularitza egokitutako errepide txapelketea jokatu zan Aguilasen (Murtzia). Han hirugarren egin eban igorretarrak.



Oskar Garro.

indar
Instalazio elektrikoak

Bidosola Industrialdea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAIA
t. 94 655 47 19
indarsi@indarsi.es • www.indarsi.es

UMEAZ moda

sew
0-16

Agirre Lehendakaria, 27 • 48140 IGORRE
Tfnua: 94 631 92 96 • seinmoda@hotmail.com

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu

Bixarra egin eta txukunduten dogu

Elexalde, 20 Rober • 630 743 543
48.140 Igorre Manuel • 661 848 793

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN

ZUZENBIDE

ZERGA ETA DERU KONTUTAN
ONDARIN HUGAZTINEN
ASIGURUTAN

Salme Arana, 3-3. floor, 94 673 71 41 - Fax: 94 673 71 41 - 48140 IGORRE

axular
Kultur-Orbita

Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

ekin s.l.
CONSTRUCCIONES

LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIOAK
UR SAREAK
SANEAMENTU SAREAK
BASERRI ETA BASO BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK

Iturriotz barrena 8 • 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: obras@construccioneseekin.com

Pinturas Anatia

Javi Morato
Tel. 628 443 992

MENDIA

Arratiako 25 tontor egin gura ditu Ander Astondoak



Ander Astondoak.

Erredakzioa

Ander Astondoak Igorrekoak Arratiako 25 tontor egiteko asmoa dauka hilaren 22an. Guztira 100 bat kilometro eta 7.000 m.tik gorako desnibel positibodun proba, hain zuzen be. Hasikerea Diman izango da eta amaiera Areatzan.

Honek dira Astondoak igoteko asmoa daukan mendiak: Bargondia (541 m.), Garaio (574 m.), Errialtabaso (1018 m.), Leungane (1009 m.), Artaun (905 m.), Gantxorrotz (780 m.), Urtemondo (788 m.) Lemoatx (358 m.), Apario (406 m.), Mandoia (636 m.) Artanda (554 m.), Untzuetza (766 m.) Arrugaeta (662 m.), Zanburu (789 m.), Lekanda (1302 m.), Gatzarrieta/Aldabe (1177 m.), Gorbeia (1481 m.), Aldamin (1376 m.), Arralde (945 m.), Eneabe (781 m.), Altungane (765 m.), Urrekoatza (588 m.), Ilunbe (447 m.), Murga (604 m.), eta Upo (608 m.).

Ganzabal Mendi Taldearen laguntzeagaz

Hogetabost mendi honek egun baten egiten saiatuko da Astondoak. "Etapak bakar baten izango da hasi

eta amaitu, sei edo zazpi horiduragaz. Ganzabal mendi taldearen laguntzeagaz. Ahal dala 24 ordu baino gutxiagotan egiteko asmoa daukat baina denpora horretatik gora badoa, ez da ezer pasauko, norberarentzat txarrago" dino kirolariak.

Erronka hau orain dala pare bat urte bururatu jakon igorretarrari. "Mendiko lasterketetan eta ultra-trailetan orain dala 4 bat urtetik hasita nabil eta hortik bururatu jatan erronka hau. Lasterketetan parte hartu arren badago nondik ibili dorsal bat ipini barik, betiko etxe inguruko mendi eta bideetatik ia noraino heltzeako kapaz nazan neurtuteko. Gainera, ondo etorriko jata gero udan, abuztu amaieran Alpeetan daukadan lasterketa baten parte hartzeako. Hor bai joan beharko nazala dorsalagaz, Ultra-trail edo Mont-Blanc-eko proban. Proba horrek 170 km, 9500m desnibel positiboa daukaz eta Chamonix-en hasi eta amaituten da".

Ander Astondoak Arratiako 25 tontor honek berak bakarrik egingo ditu, baina zati batzuk egiteko prest dagozanak egin daikie zatiren bat, "laguntzea ondo etorriko da eta".

FUTBOLA

Arratiako Gazteak txapeldun

Erredakzioa

CD Arratiako Gazteak bigarren mailako bosgarren taldeko txapeldunak izan ziran bigarrenari 3 puntu ateraz. Ligako azken partidura arte ez zan ebatzi talde txapelduna, baina ez hori bakarrik ze maiatzaren 29an Bizkaiko txapeldun gelditu ziran.

Gazteak mailan bost talde egon dira, eta txapeldunak euren artean lehiatu ziran Txapeldunen liga izeneko txapelketa baten. Titulo hori be irabazi eben. "Urte osoan burrukan egon gara eta azkenean,

beharragaz eta batez be taldearen esfortzuagaitik lortu genduan txapelketea Igorrera ekartea" dinoe Xabier Garcia eta Raul Calderon entrenatzaileak. Guztira 77 puntu lortu dabaz denporaldi honetan, 176 gol sartuz. "Taldea dinamika eta personen baloreak izan dira, hasikeran helburu ez zana izan, lortuteko ezaugarri nagusienak. Futboleko jokaturteko ezinbestekoak diran kontzeptuen asimilazioa izan da fundamentala ligan irabazteko. Partidu ederrak jokatu doguz" dinoe entrenatzaileak.



Arratia taldea.

OPEL
Ibaigana, S. Coop. Ltda.
Estuñofa, 15
48330 LEMOA (Bizkaia)
Tel.: 631 33 30 - 631 31 31
Fax: 631 30 15

Ametzola Landetxea
Ametzola 1-1
48499 Zeberio
629 429 870
www.ametzola.net

FISIOTERAPIA
Balneario Areatza
Tania Fernandez Santiago
COL. 1718
Tel.: 94 657 54 50
www.gruposasoibide.com

Gure Ikastetxeak
Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urteik 18ra. Euskalduna, kalitatekoa, herrikoa

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igoerre

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

I. Zubizarreta HI
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igoerre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

J.B. Eguskiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Hour hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Baxilengoak, Hezkuntza zikloak

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igoerre Bizkaia

RUGBY TABERNA

•Egin zaituz bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak

ARRATIako RUGBY
CLUB

arratiko.zekorrak@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

MUSIKEA

Musika kontzertua eta piroteknia batzean dituan ikuskizuna Areatzako Sakramentinoen parkean**Erredakzinoa**

Bagilaren 21ean, Europako Musika Eguna ospatuteko, gaueko 22:30ean Sakramentinoen parkean musika eta piroteknia buztartzen dituan ikuskizuna egongo da. Durango eta Areatzako Bandak joko

dabe Astondoa Pirotekniak sortutako su ikuskizunagaz batera. Ikuskizuna Udalak, Areatzako Bandak eta Astondoa Pirotekniak antolatu dabe.

Banda biak batera, 60 musikarik baino gehiagok, emongo dabe kontzertua. Udal iturrien arabera, "efektu piroteknikoak beste edozein bakarlariren moduan arituko dira kontzertuaren barruan, beste instrumentu guztiakaz harmonia betean. Aukeratutako lanen eritmoak eta sonoridadeak markauko dabe efektu bakotxaren estiloa: kasu batzuetan inpaktua indartuko da; beste batzuetan pintzelkada leunak emongo dira, hunkiberatasunagaz eta sorpresa faktoreagaz jokatuaz".

ren moduan arituko dira kontzertuaren barruan, beste instrumentu guztiakaz harmonia betean. Aukeratutako lanen eritmoak eta sonoridadeak markauko dabe efektu bakotxaren estiloa: kasu batzuetan inpaktua indartuko da; beste batzuetan pintzelkada leunak emongo dira, hunkiberatasunagaz eta sorpresa faktoreagaz jokatuaz".

IKASTAROA

Mankomunidadeko Bardintasun Sailak graffiti eta ikus-entzunezko tailerrak antolatu ditu**Erredakzinoa**

2013ko Beldur Barik lehiaketari hasikerea emoteko, Arratiako Udalen Mankomunidadeko (AUM) Bardintasun Sailak tailer bi antolatu dauz garagarilerako 1etik 12ra bitartean, "Zure artea erakutsi" lelopean. Tailerrok, graffiti tailerra eta ikus-entzunezko tailerra, gazteai dagoz zuzenduta. Izena emoteko epea hilaren 24ra arte egongo da zabalik.

Graffiti tailerrak lau orduko iraupena eukiko dau, eta 12 eta 17 urte bitarteko gazteai dago zuzenduta. Ikus-entzunezko tailerren, grabazioa, edizioa eta produkzio ostekoa landuko ditue gazteak, 15 ordu iraungo dauz, eta 18 eta 26 urte bitartekoentzat izango da.

Gazteak, gizon eta andrazkoen arteko desbardintasun egoerak detektau eta aurre egiteko sensibilizazio egitasmoa da Beldur Barik.

Graffiti ikastaroa garagarileraren 6an izango da 10:00etatik 14:00etara.

Ikus-entzunezkoa, hilaren 1, 3, 8, 10 eta 12an, 10:00etatik 13:00etara.



AKKB EGUNA

"AKKB Egune" Areatzan**Erredakzinoa**

Hilaren 22an ospatuko dau Areatzako Kirol eta Kultur Batzordeak (AKKBk) bere eguna. Eguna ospatuteko, I. Areatzako Herri Kirol Desafioa, bazkaria eta Udabarriko esku pelotako txapelketaren finala dagoz egitarauan.

Dima eta Zeanuriko herri kirolen desafioen arrakasta ikusita, Areatzako txandea da orain. Goizeko 10:00etan hasiko da desafio hau eta bertan 8 laguneko (lau andra eta lau gizon) taldeak neurtuko dira.

Bazkaria eta pelota partiduak

Bazkarirako izena emon behar da aurretik, hilaren 18an emon daikie izena oindino emon ez eta joan gura dabenak, 19:00etatik 20:00etara udaletxeko hirugarren solairuan. Bazkideak 8 euro ordaindu behar dabez eta gainontzeak 12.

AKKBk antolatutako hirugarren ekitaldia, arrastiko zortziretan izango da. Udabarriko txapelaren finala Eneko Madariagak eta Julen Eskalantek osotutako bikoteak Mikel Charro eta Asier Zarandorenaren kontra jokatuko dabe.

Oparitu BEGITU-lagun!

Egizu zure laguna BEGITUren harpidedun eta otzara bete kultura oparituko deusazu.

- 6 liburu: Arratia Inguruko Hiztegia, Ortozik, Ametz, Peru Tximaluze, Haizea aurpegian eta Arratia aldeko kanta eta bertso zaharrak.
- Arratia, Ubide eta Zeberiko argazki zaharren postal bildumea
- Luis Iruarizaga Abesbatzaren 25. urtemugako CDA

HAU DANAU JASOKO DAU BEGITU-LAGUN BARRIAK OPARI DOTORE HAU EGIN EZKERO

* Deitu 649 979 115 telefonora

35€, 55€
edo 75
Euroren truke



GEURE BERBATEGIE



Mankomunidadean egindako aurkezpena.

Geure Berbategie proiektuko hiztegiaren bersino digitala erabilgarri

Bagilaren 12an, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Arratiako Udalen Mankomunidadeak Arratiako hiztegi digitala aurkeztu eben.

Erredakzioa

Aurkezpenean, Miren Dobaran, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskera Zuzendaria; Ibon Oñate, Aldundiko Administrazio Zuzendaria; Josune Gorospe Mankomunidadeko presidentea eta Agel Larrea eta Juan Rekalde hiztegiaren egileak egon ziran. Hiztegi honetan 20.000 berba bai-

no gehiago jasoten dira eta AUMeko webgunean konsultatu daiteke.

"Euskerearen transmisioa ez da lehenengo moduan egiten eta *Arratia Inguruko Hiztegia* online ipini behar zala argi euki genduan hasikeratik" esan eban Dobaranek. Izan be, "liburuen erabilera behera doa eta ordenagailutik Arratiako kolorea Euskal Herri osora" zabalduko da Juan

Rekalderen eretxian.

Geure Berbategie proiektua, orain dala 14 urte inguru jaiotako, Angel Larrea eta Juan Rekalde Arratia Institutuko irakasleen eskutik, Arratiako euskera bizirik irauteko berbak jasoten hasi ziran. Laster proiektuak beste maila bat hartu eban eta 2010ean, Foru Aldundiko Liburutegian *Arratia Inguruko Hiztegia* aurkeztu eben. Handik gixira lehenengo edizioa agortu eta 2011n bigarrena atera eben.

Egokitzapen digital honetarako, Larrea eta Rekalde egileak Aldundiko Kultura Sailaren eta Arratiako Mankomunidadearen laguntza izan dabe, eta, horrez gainera, BiscayTIK Fundazioaren lankidetzak teknikoak, hiztegi digitalizetako eta interneten sartzeko.

Boltsarako hiztegitxoak

Arratia Inguruko hiztegi mardularen boltsarako bersinoak be egin dabe Larrea eta Rekaldek. *Berbategitxoak*. *Arratiako berbetearen gixieneko hiztegia*, izenagaz, egileak Arratia inguruan egiten dan euskerearen oinarriko berbak jasoten ditue bertan. Zertuk kudeatu dau edizioa eta Ediciones Betak argitaratu eta Institutu eta eskoletan banandu da. Udaletxeetan be laster bananduko da eta Begitu-lagunak etxean jasoko dabe berandu baino lehen.

Hiztegitxo hau hamaika eta hamasei urte bitarteko gazteai dago "gehienbat zuzenduta, geure berbetearen ezagutzea, ikasketa eta erabilera" bultzatzeko, egileen arabera.

ERAKUSKETEAK

Abaituaren atzera begirakoa



Erredakzioa

Areatzako Udalak, Euskal Museoa-gaz eta Areatzako Persona Nagusien Alkartegaz kolaborazioan, Eulalia Abaitua (Bilbo, 1843-1943) argazkilaria aurrendari eta autodidaktearen argazki-erakusketak antolatu dau. Erakusketak bagilaren 13tik garagarriaren 31ra bitartean bisitatu ahal izango da ludotekan. Inaugurazioa hilaren 12an izan zan eta bertan Josune Ariztondo BFAko Kultura Diputadua eta Areatza eta Zeanuriko

alkateak egon ziran besteak beste.

"Arratiako irudiak" izeneko erakusketan, argazkilaria erretrautako sasoi haretako Arratiako jentea eta ohiturak erakusten dira.

Eulalia Abaituak Ingalaterran deskubridu eban argazkigintza. Bere familiaren irudiez gainera "bere gai nagusia persona xume, apal eta ia beti anonimoak ziran, beti be sinpletasun eta fintasun handiz erretratetan ebanak" Arratiako sasoi haretako sonbreluak, burukoak eta orrazkerak ezagunak dira Abaituaren erretratuai esker.

DUNBA

Alkizako barnetegia

Areatzako eskolako 2. zikloko ikasleak

Areatzako eskolako 2. zikloko ikasleak maiatzaren 20tik 23ra

Alkizako barnetegira joan ginan.

Alkiza Gipuzkoako herri txiki bat da, Tolosa eta Billabona herrietatik gertu dago. Herri txikia izan arren herri polita da eta inguruan

mendi ugari dagoz. Barnetegia herriaren erdian kokatuta dago, frontoitik eta eskolatik hur.

Nahiz eta eguraldiak lagundu ez, etxea handia da, 3 solairu ditu, eta aukera asko eskeintzen ditu ekintza desbardinak etxe barruan egiteko, baina ez dauka jantokirik eta gosaria, bazkaria eta

afaria Otsamendi izeneko herriko jatetxe baten egin genduzan.

Etxean monitorea egoten dira ikasleak behar egiteko. 4. mailako ikasleak aurretik egonda egozan eta barnetegian egozan begiraleak eta egingo zituen ekintzak ezagutzen zituen, hau dala eta, bertako monitorea aldaketa batzuk egin zituen ekintzetan.

Era askotako ekintzak egin genduzan: pelikulak, zaldian ibili, jolasak, karaokea, mozerroak...

Jolasen artean herria ezagutzeko orientazio jolasa, hartu-emonak sendotutako jolasak, alkar lana bultzatzeko jolasak... egin genduzan.

Ikasleak gustura eta pozik ibili dira. Monitoren lana azpimarragarria izan da ikasleak hartu-emon ona lortzeako. Jolasen bidez euskera era erakargarri baten aurkeztu dabe eta holan hizkuntzearen berezko erabilera bultzatu da.

Alkizan 4 egun pasau eta gero nekatuta baina pozik bueltatu gara

etxera, barriro bueltetako gogoagaz.

Areatzako umeen partez: Animau eta joan euskal girotze barnetegietara.



Areatzako eskolako 2. ziklokoak Alkizan.



AGENDEA

**BAGILAK 18
AREATZA**

Eulalia Abaituaren "Arratiako irudiak" argazki erakusketea ludotekan garagarilaren 31ra arte.

20:00etan, Mus2kak perkusino eta biola kontzertua. AKKBk antolatuta.

BEDIA

17:00etan, murala eta jaietarako apaingarriak liburutegian.

**BAGILAK 19
AREATZA**

Goizean, "Maddi eta txistua" liburuaren aurkezpen musikatua. 20:00etan, Buster 4tet, jazz laukoteak Buster Keatonen *The cameraman* pelikulari musika zuzenean. AKKBk antolatuta.

BEDIA

17:00etan, kurso amaiera liburutegian. Urtean zehar egindako tailerren erakusketea. 17:30ean, tailer barrirentzako proposamenak. 18:00etan, merienda.

LEMOA

Jaietako kartel lehiaketako azken eguna.

ZEANURI

18:30ean, Zeanuriko Musika Eskolaren ikasturte amaierako kontzertua Kultur Etxean.

**BAGILAK 20
AREATZA**

20:00etan, Bilboko Orkestra Sinfonikoko perkusionisten kontzertua Udal Aretoan.

IGORRE

19:00etan Gure Esku Dago ekimenaren aurkezpena Kultur Etxean.



19:00etan, berbaldia "Zero zabor, guk zer egin ahal dugu?" Kultur Etxean. Ekologistak Martxan eta Igorre Bizirik antolatuta.

**BAGILAK 21
AREATZA**

19:00etan, Arratiako Musika Eskolako txokoz txoko emonaldia. Udalak antolatuta.

22:30ean, Areatzako eta Durangoko Bandak eta Astondoa Pireteknika

"Musikasua" Sakramentinoen parkean. Udalak antolatuta.

BEDIA

Herriko jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

LEMOA

16:30ean, kurso amaierako jaiak eskolan.

19:00etan, Ganzabal Mendi Taldeak

antolatuta, *stretching* saioa, jubiladuen

gaineko aretoa.

21:00etan, Gizarte Zerbitzuak antolatutako

kontzertuak Gaztetxean.

UBIDE

Herriko jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

**BAGILAK 22
AREATZA**

AKKB Eguna. 10:00etan, Areatzako I.

Herri Kiroi Desafioa. 14:00etan, bazkaria.

17:00etatik 20:00etara, umeen jolasak guraso

alkarteak antolatuta. 20:00etan, Udabarri

esku pelota torneoaren finala. Areatzako

frontoian.

ZEANURI

Jaiak Altzuagan, ikusi egitaraua 7. orrialdean.

**BAGILAK 23
ARANTZAZU**

20:00etan, herritarrentzako sardinajana.

21:30ean, San Juan sua.

AREATZA

Sardinajana eta San Juan sua Zubizarren.

ARTEA

08:00etan, Auzorik Auzo XVII. Martxea.

DIMA

16:30ean, pelota eskolako umeen partidua.

17:30ean, nesken pala partidua. 21:00etan,

San Juan sua eta txixi-burruntzia.

JAIETATIK ETXERA BUELTATZEKO AUTOBUSA

BEDIAKO SAN JUANAK NOIZ: Ekainaren 21a (Zapuzua) ORDUTEGI: 2:30etan eta 4:30etan NON: Autobusaren parada	ARANTZAZUKO SAN PEDROAK NOIZ: Ekainaren 21a (Zapuzua) ORDUTEGI: 2:30etan eta 4:30etan NON: Autobusaren parada	DIMAKO SAN PEDROAK NOIZ: Ekainaren 21a (Zapuzua) ORDUTEGI: 2:30etan eta 4:30etan NON: Autobusaren parada	AMOREBIETA-ETXANOKO KARMENAK NOIZ: Uztailaren 20a (Zapuzua) ORDUTEGI: Uztailaren 21a (Zapuzua) ORDUTEGI: 2:30etan eta 4:30etan NON: "Nafarroa" zentroko parada
LEMOAKO SAN INAZIOAK NOIZ: Abuztuaren 3a (Zapuzua) ORDUTEGI: 2:30etan eta 4:30etan NON: Koroaren ondoan	ZEANURIKO ANDRA MARIAK NOIZ: Abuztuaren 14a (Zapuzua) ORDUTEGI: 2:30etan eta 4:30etan NON: Autobusaren parada	AREATZAKO SAN BARTOLOMEAK NOIZ: Abuztuaren 30a (Barikua) ORDUTEGI: 2:30etan eta 4:30etan NON: Autobusaren parada	
ARTEAKO ANDRA MARIAK NOIZ: Irailaren 6a (Barikua) ORDUTEGI: 2:30etan eta 4:30etan NON: Autobusaren parada	GALDAKAKO SANTAKURTZAK NOIZ: Irailaren 14a (Zapuzua) ORDUTEGI: Irailaren 21a (Zapuzua) ORDUTEGI: 2:30etan eta 4:30etan NON: Udaltzaiteko autobusaren parada		

Jaietatik autobusak goizaldean

Nobedade bat izango dabe aurten jaietatik herrira bueltetako gaueko autobusak. Aurten, Mankomunidadeak Galdakao eta Amorebieta-Etxanoko Udalakaz batera egin dau alkarlana eta jai horreetatik be Arratiarako autobusa egongo da. Herrira bueltetako autobusak, 02:30ean eta 04:30ean hartu ahal izango dira autobus geralekuetan, Arantzazun izan ezik; han, 03:30ean hartu behar da eta.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU**SALGAI**

Garaje partzela salgai Lemoa erdigunean. 660 549 695 Bego.

JOSTEKO MAKINEA SALGAI

Alfa 1203 modeloa. Oso ondo zainduta, gitxitan erabilia. 100€. Telefonoa: 661 273 192 (Laxia).

SALGAI

Haretezeko arasa ederra salgai. 139zm zabal, 50 sakon, 193 altuera. Ikusgai dago Elexalde 10ean, Igorren. 800 €. 615 731 182.

AUTOA SALGAI

Fiat Punto 1.2 Dynamic 5 ateduna. 8 urte ditu. ITVa 2014ko bagilera arte pasautu, 672 762 066 (Gaizka).

AUTOA SALGAI

Toyota Landcruiser-a saltzean dot. Interesdunak 615 728 940 zenbakira deitu (Pili).

ETXEA SALGAI

Babes Ofizialeko pisua salgai Areatzan. Aukera ezin hobea Arratian biziteko. 3 logela, bainu bi, sukalde ipinita, saloia, garajea eta trastelekua. Nerea 674 798 984.

DANERIK**ETXEA ALOKATZEN DOGU**

Alokairuan dagoan pisu baten bila gabizan neska arratir bi gara. Alaitz eta Maider 652 722 698.

BIZIKLETEA GURA DOT

Errepidean ibilteko bizikletea gura dot. Zaharra eta merkea bada, barria eta karua baino hobeto. Idatzi: sautuolabarri@gmail.com helbidera.

GARAJEA ALOKAIURAN

Zeanuriko plaza-plazan dagoan garajea emongo neuke alokairuan. Interesdunak 94 631 70 46 telefonora deitu (iluntzetan).

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa**Zenbaki honetako saridunak:**

1
Axpe Goikoa Jatetxeak emondako txakolin kajatxoak (3 botila).

Lorea Arribas (Igorre)



2
BEGITUREN kamiseta bana.


Amaia Arana (Lemoa)
Abel Ariznabarreta (Dima)



3
Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 11 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Arratiako hamabostekaria. 2.- Letra bat. Petral, ziztrin. 3.- Eguzkiaren jainkoa. Zeozer sinisten ez dala adierazoteko interjekzioa. Bokala. 4.- Trebetasun. Zidarra. 5.- Komiko. 6.- Europioa. Arantzadun zugaxka txiki. 7.- Azken letrea. Manganesoa. Laurentzinoa. 8.- Ubera. Bat erromatar. 9.- Plurala, marruma.

GOITIK BEHERA

1.- Muskulu baten izena. 2.- Bigarren letrea. Lege. Bromoa. 3.- Ezetza. Birritan, bular. Birritan, begiaren distira. 4.- Ondorio. 5.- Uretan hil. Kanpo. Bizkaiko udalerria. 6.- Tantaloa. Narru. Konsonante bat. 7.- Kaskagorri.



Topau Bizkaikoak diran zazpi mendiren izenak.

S	A	R	B	E	L	A	T	Z	I
O	R	T	A	M	I	G	O	M	A
R	N	I	M	A	D	L	A	E	B
K	A	L	E	J	A	N	T	O	O
E	Z	K	I	R	D	A	E	U	L
M	N	U	D	O	L	U	I	Z	E
A	K	A	I	P	U	L	K	A	G
J	I	A	G	O	R	E	I	P	O
U	R	R	I	N	K	O	X	I	A
A	R	R	A	G	U	M	T	O	L
S	E	T	A	B	L	E	A	Z	D
O	Z	I	R	O	U	N	L	A	I
R	U	A	D	N	A	K	E	L	U
B	E	L	O	K	I	N	B	O	Z
U	R	I	N	O	I	N	R	E	H

AKI MI KO

Aitziber



BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA
Instalazio elektrikoak • Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoak
Juan de Auriagerra 1 Behea 48330 Lemoa
Tfnoa-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

AKESOLO, S.A.
GARRAIKAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Garbe, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

Los Chopos
neurritza egindako armairuak
Avda. Los Chopos, 35 (Nugar) Tel.: 94 630 40 94
Esposizioa eta fabrika Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

Orrie
FOTOKOPIAK - PAPERBENDA
L. Agirre, 1.
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnooa: 94 673 64 25

begitu
anaitza abalo abalo

NAIARA Hertz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
04 631 52 26

AKITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

*** KIRRU * ILEAPANDEGIA**
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 bajo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
• 94 631 92 00

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia 609-79-40-34

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

Igorren ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Emilio Goitia banatzaile ofiziala
San Miguel
Ardoak Edariak
94 673 64 02 Industrialea E-3 Pabeloia (Igorre)

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ
Balmenak: A1, A, B1, B
Lehendakari Agirre 31
Tfnoa: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@euskalnet.net

L
ARRATIA AUTOESKOLA
karneta eskolaraz zein erdaraz
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefona 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83
e-posta: unda@euskalnet.net

BTKDA BATUKADEA

"Gazteentzat beharrezkoa dan alternatiba bat emon gura dogu, beste aisialdi eredu bat"

BTKDA batukadeagaz egon da BEGITU. Tartean instrumentu birziklatu eta guzti, sanantonioetan agertu dira lehenengoz. Momentu honetan taldekide danak Igorrekoak badira be, edonor apuntau daiteke taldera. Herriari eritmoa emoteko prest dagoz gazteak.



Irati Urien

Nondik dator BTKDA izena?

Iraitz Sagarna: Taldekide bik pentsau eben, Iñigok eta Aimarrek. "Batukada" berbatik hasi eta konsonanteak hartu genduzan, azkenean holantxi gelditu zan. Esangurea be ondo geldituten zala ikusi genduan, BTKDA horrek betekadea dakarrelako, jentea betetea lez.

Zer dala eta hasi zan batukadea martxan?

Naiara Bilbao: Igorreko Lurrarinek Gazte Asanbladan hasi zan dana. Danori gustetan jakun musikea, eta herria animetako zeozer behar genduan.

I.S.: Arratia mailan batukada talderik ez egoala ikusita aukera polita izan ahal zala iruditu jakun gainera.

Noz?

I.S.: Igazko uda ostean instrumentuak egiten hasi ginan. Instrumentu horreek birziklatuak ziran. Orain danerik daukagu, birziklatuak eta ez.

Zergaitik instrumentu birziklatuak?

N.B.: Merkeagoa dalako. Hasteko aukerarik onena horixe zala ikusten genduan. Dirurik ez geunkan eta.

Irati Bernaola: Nik pentsetan dot hasi ginala birziklatua egiten batez be batukadea musika jo tea bada hori egiten hasi orduko aurre-lan bat egin gura izan gendualako.

Nondik ikasten dozue? Ze erreferentzia hartzean dozue?

I.S.: Taldean Ibone Madariaga dago, eta honek Kukutzan batukada taldean jotzen eban. Berari esker aurrerapausu handiak egin doguz.

N.B.: Gainera taldean musikariak be badagoz eta horrek asko lagunduten dau. Interneten be begiratu doguz bideo batzuk.

Zenbat zarie taldean momentu honetan?

N.B.: Hamar. Momentuz danok gara Igorrekoak.

Igorrekoa izan behar da edo edozein apuntau daiteke?

N.B.: Ez, ez, edozein. Ateak zabalik dagoz.

I.S.: Jentea animetea gura dogu.

Hamar gazte baino ez gara eta zaratea potenteagoa atera gura dogu.

Zelan antolatuten zarie en-saietako?

Eneko Muñoz: Bariku eta zapatuetan geldituten gara. Kontzertua baino lehenago be preparazinoren bat egiten dogu, behar izan ezker.

Ensaio horreek kanpoan egiten dozue. Zergaitik?

I.S.: Ez daukagu lokalik. Ondo dago kanpoan ensaietea baina euria egiten dauanean eskoletako aterpera joaten gara. Gustauko litxakigu lekutxo bat eukitea. Ona egiten dauanean beti goaz leku bardinera, eta momentuz auzokoak ez dira keju. Arpegi txarrik be ez deusku inok ipini. Baina klaro, beti "molestetan" ibiltea be ba...

N.B.: Halanda be jentek eza-gutu egiten gaitu horregaitik eta hori beste era bat da gure eritmo zein asmoak erakusteko.

Igorreko jaietan jo dozue lehenengoz. Zelan urten eban?

Iñigo Mintegi: Sano polito. Atzenengo barikuan, tortilla txapelketea egoan lekutik hasi ginan, Orobirik. Txosnagunetik be pasau

ginan: Han, Beñat Etxebarriaren lagun taldearen aurkezpena egin zan. Guztira ordu bi inguru ibili ginan jotzen. Jenteari gustau egin jakola eta disfrutau egin ebalu emoten eban.

I.S.: Arinago be egin genduan agerralditxo bat. Jaietako "Zu bai zu!" talentu lehiaketan parte hartu genduan, aurkezpen txiki bat egiteko asmoagaz. Baina azkenean, irabazi be egin genduan.

Oraindino lar ezagunak ez bazarie be, zelakoa da jentearen erantzuna?

I.S.: Momentuz, sano positiboa. Ez jaku inor keju, eta gainera badago persona bat hurbildu eta botateko eukan tinbal bat emon deuskuna.

Zelan ebatzi zenduen bakotxak ze instrumentu jo?

E.M.: Bakotxak gura ebana hartu eban.

I.S.: Nik adibidez kazulea hartu neban, ez nebalako gura zeozer handia eta pisutsua.

Zenbat kanta daukazue?

E.M.: Hiru, baina luzeak.

I.B.: Oso onak diranez hamar dirala emoten dau. (Taldekide danak barre egiten dabe).

I.S.: Hasteko ez dago txarto, apurka-apurka goaz.

Aparteko estilismoren bat erabiliko dozue?

I.S.: Momentuz, bakotxak etxetik kamiseta zuri bat hartu genduan eta baten batek tinta morea ekarri eban. Orduan, tintan sartu eta guk egin genduzan kamiseta moreak. Orain arte, jente aurreko ikuskizun bietan jantzi doguzanak.

Non joko dozue hurrengo?

N.B.: Dimako jaietan, Lemoakoe-tan eta San Kristobalen be bai.

I.S.: Baita Zaztapparren udalekue-tan.

Zeintzuk dira BTKDAren etorkizunerako asmoak?

I.S.: Hasteko, baten bat ekarte. Eta gu be formetan joatea talde moduan. Eta zelan ez, ondo pasetea.

N.B.: Jaiarik jai ibiltea.

I.B.: Gazteentzako alternatiba bat emotea herrian. Izan be, askotan ez dago tabernetan egotea baino askoz gehiago eta hau atzenean beste aisialdi eredu bat da. Nahiz eta batukadea gazte asanbladakoa ez izan, Lurrarinen helburuetako bat be horixe da, eta hortik sortu da BTKDA.

— Dioloka, pizzak saltoka
— eta oiloak txio-txiokaff

Igorreztar ta dimoztar batek
etxeke generoa dakargu, —

— erduzie??

Oioloka 

Ekainaren 26ean, 20:00etan
inaugurazinoa

—
eguenetik
domekara
zabalik

Ondar Deuna 17, USANSOLO
Tlf: 944028575

Oilaskoa oilasko erdia patatak patata brabak gazta barrak kipula eraztunak
kroketak piper berdeak muskuiluak (mejiloiak) oilasko hegotxoak haragi pikantedun bonba
entsaladak pizzak errazioak izozkiak postreak edariak